

## **BULARRETIK MINTZORA KANPAINA EAEKO 10 HERRIETAKO 4.000 HAUR, 250 IRAKASLE ETA 30 IKASTETXEETARA IRISTEN DA DAGOENEKO**

2007. urteko abendua, Tolosako Haur Liburutegia. Hantxe eman zion hasiera Galtzagorri Euskal Haur eta Gazte Literatura Elkarteak orduan inork ezagutzen ez zuen Bularretik Mintzora kanpainari. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Liburutegi Zerbitzua izan genuen laguntzaile. Eta munduan zehar ezagutzen genituen honelako beste kanpainak abiapuntu. EAEko haurren irakurtzeko zaletasuna zen gure kezka. Hauen irakurketa ohitura sustatzea txiki txikitandik beren etxean, liburutegian eta eskolan. 2011ko uztailan, Tolosa, Oñati, Legazpi, Donostia (Erdi gunean eta Alde Zaharrean), Ermua, Iurreta, Markina, Amurrio, Aramaio eta Urkabustaitzeraino iritsi da kanpaina. 2011-2012. ikasturtean 12 herri izango dira jada BM kanpaina martxan izango dutenak. Izan ere, Arrasate eta Laudion ere egitasmoa abian jartzeko hitzarmenak sinatu dira udal bakoitzarekin.

Guztira, egun, EAEko 0-6 urte bitarteko 3.956 haurrengana iristen da Bularretik Mintzora kanpaina. 29 ikastetxeetako 250 irakasle dabilta egitasmo honen baitan formazioa eskuratzen eta aipatu 10 herrietako haur liburutegietan zehar, Galtzagorri adin tarte horietarako gomendatutako 1.000 liburitik gora biltzen dituzten 130 liburu-maleta dabilta bidaiatzen (IKUS ATXIKITAKO DATUEN TAULA).

Honez gain, BM kanpainarako Galtzagorri Elkarteak azken urteetan sortutako bi CD-liburuak (*Bularretik Mintzora* eta *Sasi Guztiaren Gaietia*) herri hauetako 2.000 haur baino gehiagoren artean banatu dira. Eta gainera, 2011n zehar *Bularretik Mintzora* CD-liburua 18.450 jaioberriren gurasoek jasoko dute guztira ospitaletan, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren eta Osakidetzaren lankidetzari esker.

Esan bezala, 2011ko irailean Arrasate (21.800 biztanle) eta Laudio (18.500 biztanle) sartuko dira kanpainan. Baina Bularretik Mintzorak itxaron zerrenda bat ere badauka. Izan ere kanpainan sartzeko interesa azaldu dute Oiartzun, Arrigorriaga, Amorebieta-Etxano eta Zumarragak. Azken lau herri hauekin aurkezpen bilerak egingo dira hurrengo udazkenean, 2012-2013. ikasturteari begira kanpaina ezartzen hasi ahal izateko. Horrela, ez oso epe luzean, 16 herri izatera heldu daitezke, EAEn oihartzun handia hartzen ari den egitasmo honen baitan.

## ZERGATIK BULARRETIK MINTZORA?

2007az geroztik ari da lanean Galtzagorri Elkarteak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta udal parte hartzaileen babesarekin, herriz-herri, haur txikien artean irakurzaletasuna zabaltzeko egitasmo honekin. Tolosan eman ziren lehenengo urratsak, eta laster zabaldu zen Amurrio, Ermua, Iurreta, eta Oñatin. Bigarren fasean, 2009-10 ikasturtean, Aramaio, Markina eta Legazpi bildu ziren, eta dagoeneko badira 10 herri, tartean hiriburu bat ere delarik, Donostia hain zuzen.

Euskal literaturaz, bai tradizionalaz, zein gaur egunekoaz, baliatzen gara irakurketa ohiturak sustatzeko haurraren inguru naturalean: etxean, eskolan eta liburutegian. Horretarako, helduen prestakuntza da egitasmoaren helburu nagusienetako bat, hauek baitira literatura eta haurraren arteko bitartekari beharrezkoak.

Ekonomiaren krisi garai hauetan, kanpainaren zabalkundea bermatzeko ahalegin nabarmena egiten ari dira eragile guztiak: hala Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila, nola udal parte hartzaileak eta Galtzagorri Elkarteak bera ere. Izan ere, jakina da horrelakoak gainditzeko ezinbesteko tresna dela kultura eta irakurketa, hiritar jantziak (bai euskararen erabilerari dagokionean, bai kulturari dagokionean ere) hezi ditzagun. Hezkuntzak eta kulturak garrantzi berezia hartzen dute krisi bat gainditzeko garaian.

Aipatu ahalegin honen adibide ikasturte honetan berriz ere egingo den material banaketa azpimarratu nahi genuke: parte hartzen duten ikastetxe guztietan, 3 urteko haurren artean [Bularretik Mintzora liburu-CDa](#) eta egitasmoaren inguruan argitaratutako hainbat inprimaki; eta 5 urteko haurren artean berriz [Sasi guztien gaintetik liburu-CDa](#), aipatutako inprimakiek lagunduta; kasu bakoitzean 1.000 aletik gora banatuko direlarik.

Aurten, arestian aipatu denez, banaketa ezohizko bat ere egiten ari da: Kultura Saileko Hizkuntza Politika Sailburuordetzak eta Osakidetzak sinatutako akordio baten ondorioz, Osakidetzako ospitaletan, jaio berri guztiek *Bularretik Mintzora* liburu-CDa eta egitasmoaren aurkezpen txiki bat jasotzen dute opari. Informazio gehiago [hemen](#).

## HAURREN LEHENENGO URTEETAKO PROGRAMETAN INBERTITZEA ERRENTAGARRIA DA

*Bularretik Mintzoraren* antzeko egitasmoak (haur txikiengan irakurketa ohiturak sustatzea helburu dutenak) mundu mailan hainbat herrialdetan ari dira garatzen. Horretarako argumentu ekonomikoak, sozialak, demografikoak, etikoak eta are fisikoak ere topa daitezke. Esaterako, frogatua dago haur txikiengana bideratutako egitasmo sozial eta kulturalen ondorioak askoz ere positiboagoak direla helduengana bideratutakoenak baino. Ikerketek diote hori. Adibidez, James J. Heckman-en *Invertir en la primera infancia* <http://www.ounceofprevention.org/news/pdfs/HeckmanInvestInVeryYoung.pdf> txostenak dio helduek zailtasun gehiago dituztela trebezia berriak eskuratzeko eta urte gutxiago dutela gainera ikasteko egindako gastua errekupezatzen. Aldiz, haur txikiengana bideratzen diren programek, Britainia Handiko *Bookstart*, edo Kataluniako *Nascuts per Llegir* en gisakoek, onura izugarriak eskaintzen dituzte; izan ere haurrek gero euren bizitzan zehar trebetasunak eskuratu ahal izateko oinarriak ezartzeko abilezia soziala eskuratzen dute. Soilik ikuspegi ekonomikoa kontuan hartuko bagenu ere, zentzu handia dauka, Heckman-en iritziz, haur txikiengana bideratutako ekimenetan inbertitzeak.

Eskolan irakurtzeko eta idazteko gaitasun nahikoa eskuratzen ez duten haurren arazoa zabala da mundu osoan. Eta honek herrialde baten ekonomiarekin eta garapenarekin zerikusi zuzena du. Adibidez, Britainia Handian Lord Leith-ek egin zuen *Prosperidad para todos en la economía global: habilidades de clase mundial* [http://webarchive.nationalarchives.gov.uk/+http://www.hm-treasury.gov.uk/d/leitch\\_finalreport051206.pdf](http://webarchive.nationalarchives.gov.uk/+http://www.hm-treasury.gov.uk/d/leitch_finalreport051206.pdf) izeneko txostenak zera jarri zuen agerian: irakurtzeko eta idazteko zailtasunak dituzten helduen %18ak zailtasun gehiago izaten dituztela lana aurkitzeko garaian.

Horregatik, txosten honetatik zera ondorioztatzen zen: helduen hezkuntzan inbertsio handia egiteko beharra zegoela, baina horrez gain, herrialde osoan “aprendizaiaren kultura” sustatzea zela garrantzitsua. Eta honetan, *Bookstart* edo *Bularretik Mintzora* bezalako programek zeresan handia dute. Izan ere, programa hauek haurrei aprendizaiaren prozesua eman dadin oinarriak eskaintzen dizkiete. Programa hauek etxean irakurketa eta liburuen erabilpena ohiko zerbitzu izatea sustatzen dute. Eta etxe batean liburuak ezagutzera erabiltzen dituen gunea da. Frogatua dago haur batek ikasteko jarrera positiboa izan edo ez izan, bere etxeko giroak, hau da, bere gurasoek etxean egiten duten eragin zuzena duela. Gurasoek beraz, funtsezko rola betetzen dute hemen: eskolan hasten den unean ere, haurrak bere denboraren %85a gurasoekin (edo familiakoekin edo zaintzaileekin) igarotzen baitu, eta beste %15a eskolan. Horrek garbi erakusten du gurasoek zenbateraino duten garrantzia gero eskolan haurrek beharko dituzten komunikaziorako, hizkuntzarako eta entzumenerako trebetasunak gara ditzaten.

## EBALUAZIOA

Bularretik Mintzora egitasmoa etengabe ebaluatzen da: bere eragina neurtzeko batetik; eta behar diren hobekuntza eta aldaketak egiteko, bestetik. Orain artean guraso, irakasle eta bibliotekariei eginiko galdekizunen bitartez kanpaina burutzen hasterako herri bakoitzaren abiapuntua zein zen neurtu nahi izan da: guraso, irakasle eta bibliotekariak irakurketarekiko eta haur literaturarekiko dituzten jarrera, ohitura, eta informazioa neurtu dira.

Aurten, lehengo aldiz, egitasmoan parte hartzearen ondorioz, haur literaturarekiko eta irakurketarekiko jarrera, ohitura eta informazioa aldatzen joan ote diren aztertu da. Emaitzak hurrengo udazkenean izango dira prest. Horrelako egitasmo baten eragina epe luzera nabaritzen hasiko dela jakin badakigun arren, lehenengo urratsek zer esaten diguten jaso nahi izan dugu.

## INFORMAZIO GEHIAGO

Aurten **etb-1**eko [Ipuomamua](#) saioak monografiko bat eskaini dio Bularretik Mintzora egitasmoari. Kanpainaren baitan herri bakoitzean burutzen diren ekintza zehatzak eta hauen helburuak ezagutzeko parada duzue [hemen](#) ikusgai duzuen saioaren bideoan.

[www.bularretikmintzora.org](http://www.bularretikmintzora.org) helbidean informazio zehatzagoa aurkitu daiteke egitasmoaren atal ezberdinei buruz. Nahi izanez gero, egitasmoari lotutako informazioa eskaintzen duen [buletinera harpidetzeko](#) aukera ere badago, web gunean.

Antzeko egitasmoak munduan zehar:

[Nascuts per llegir](#) Katalunia

[Bookstart](#) Erresuma Batua

[Leer en familia](#) Kolonbia

[Bookstart](#) Munduan zehar

	GIPUZKOA	BIZKAIA	ARABA	EAE
<b>PARTE HARTU DUTEN HERRIAK</b>	4	3	3	10
	Tolosa Oñati Legazpi Donostia (Zentrua eta Alde-Zaharra)	Ermua Iurreta Markina	Amurrio Aramaio Urkabustaiz	
<b>IKASTETXEAK</b>	15	8	6	29
<b>IRAKASLEAK</b>	170	50	30	250
<b>HAURRAK</b>	2.773	730	453	3.956
<b>MALETAK</b>	50	30	35	130
<b>BM LIBURU-CDA (3 URTEKO HAURRERI)</b>	710	165	95	970
<b>SGG LIBURU-CDA (5 URTEKO HAURRERI)</b>	740	200	95	1.035
<b>BM LIBURU-CDA (JAIOBERRI GUZTIERI)</b>	6.750	9.500	2.200	18.450

**Kontaktua:**

Jone Arroita Jauregi  
 Bularretik Mintzora koordinazioa - GALTZAGORRI ELKARTEA  
[bularetikmintzora@galtzagorri.org](mailto:bularetikmintzora@galtzagorri.org)  
[www.bularretikmintzora.org](http://www.bularretikmintzora.org)  
 Tlf: 943 47 14 87

Izaskun Jauregi  
 Idazkari Teknikoa - GALTZAGORRI ELKARTEA  
[galtzagorri@galtzagorri.org](mailto:galtzagorri@galtzagorri.org)  
[www.galtzagorri.org](http://www.galtzagorri.org)  
 Tlf: 943 47 14 87